



BIBLIOTEKA PUBLIKOAK: 100 LIBURUTEGIEN INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK AZTERTU DITUGU, ESPAINIAKO 18 HIRITAN

GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANAK, INFORMAZIOA ETA ERABILTZAILEENGANAKO ARRETA, ETA EZINDUENTZAKO IRISPIDEAK, HORIEK DIRA BIBLIOTEKA PUBLIKOEN ALDERDIRIK ONENAK

Lau liburutegitik batek ez du gainditu kalitate proba: haien zerbitzuak gabeziak ditu eta segurtasunaren atalean ere huts egiten dute

**T**eknologia berriak hedatu ahala, liburutegi publikoen izaera aldatuz joan da; liburuak begiratzeko, gordetzeko eta hartzeko leku izan dira betidanik, eta orain, horri utzi gabe, bestetarako leku ere bihurtu dira: fonoteka, bideoteka, ordenagailu gela, wifi bidezko konexio gunea... Erabiltzaileek hala eskatu dutelako moldatu behar izan dute beren jarduera, baina, hala ere, alde handiak daude liburutegi batzuetatik besteetara. Halaxe egiaztatu du CONSUMER EROSKI-k egin duen azterketak (100 biblioteka bisitatu ditugu, Espainiako 18 hiriburutakoak). Hamarretatik hiruk soilik dauzkate ikasketa gelak taldeentzat, % 15ek ez dauzkate wifi guneak, eta 22 liburutegitan soilik aurkitu ditugu gauzak uzteko armairutxoak doan.

Gainera, % 40k ez daukate gunerik bideo artxiobak edo soinu artxiobak ikusteko. Gabezia horien ondoan, ordea, badituzte alderdi oso ongi zainduak ere: informazio eta arreta ona eskaintzen dute (bibliotekako gelak eta aretoak non dauden eta nola aurki litezkeen adierazten duten kartelak bista-bistan egon dira % 87tan), irispide egokiak dituzte guztientzat, eta oso txukun eta garbi daude (% 90etan egoera onean eta apaletan ordenatuta aurkitu ditugu mailegatzeko eta kontsultatzeko materialak).

CONSUMER EROSKI-ko teknikariak bibliotekaz biblioteka ibili dira abendu erdialdean; unibertsitate-bibliotekak aztertu dituzte (17), Estatuaren Biblioteka Publikoak (14) eta udal edo eskualde bibliotekak ere bai (69). Honako hiriburu hauetan egin dute azterketa: Bartzelona, Madril, Murtzia, Bilbo, Malaga, Sevilla, Valentzia, Zaragoza, Alacant, Iruñea, Donostia, Gasteiz, A Coruña, Kordoba, Valladolid, Cadiz, Granada eta Oviedo. Proba guztiak egin ondoren, lau liburutegitatik batek ez du gairitu CONSUMER EROSKI-k jarri dien azterketa. Batetik, biblioteka-egoitza guztiak zorrotz aztertu dituzte gure teknikariek, eta arretaz zaindu dute bakoitzak zer informazio eta zerbitzu eskaintzen dituen, zein irispide dauzkan, zer-nolako segurtasuna duten eta nola zainduta eta garbituta dauden. Bestetik, liburutegiko txartela egiteko zer egin behar den galdetu dute, eta mailegu eta kontsulta sistematik nola funtzionatzen duen ere bai. **Liburutegiek eskaintzen duten zerbitzua, oro har, 'onargarria' iruditu zaie gure teknikariei.** Emaizta horixe lortu dute zerbitzuen eta segurtasunaren arloan ere. Informazioak eta irispideek emaitza 'ona' lortu dute, eta garbitasunak eta mantentze-lanek, berriz, 'oso ona'.

Hiriak banan-banan hartuta, Bilbokoek lortu dute emaitzarik onena ('oso ona'), eta atzetik etorri zaizkie beste hiri hauetakoak (emaitza 'ona' izan dute): A Coruña, Bartzelona, Kordoba, Granada, Madril, Murtzia, Donostia eta Gasteiz. **Beste batzuk maila 'onargarrian' geratu dira** (Cadiz, Malaga, Oviedo, Sevilla, Valentzia eta Valladolid), eta, azkenik, beste zenbaitek ez dute gairitu proba ('hala-holako' emaitza lortu dute): Alacant, Iruñea eta Zaragoza.



Liburuak kontsultatzeko eta mailegatzeko leku izan zirenak, denborarekin, informazio zentro, kultura gune eta heziketa eremu bihurtu dira, eta hainbat bitarteko eskaintzen dituzte horretarako: automailegu zerbitzuak, erakusketa aretoak eta Interneteko bilaketak egiteko tresnak. Gabeziak, hala ere, nabarmenak dira oraindik, eta horrexegatik lortu dute liburutegiek, batez beste, hain emaitza apala ('onargarria'). Lautatik batek, izan ere, ez dauka banakako ikasketa gelarik, eta hamarretatik hiruk soilik dauzkate taldeentzako ikasketa gelak. Gainera, biblioteken % 15ek ez daukate wifi gunerik, % 17k ez daukate ordenagailu gelarik Interneterako sarbidearekin, eta % 25ek soilik daukate automailegurako lekuak; erabiltzaileek gauzak gordetzeko armairutxoak, berriz, 22 bibliotekatan soilik dira doakoak. Fotokopia zerbitzua hirutatik batean soilik dago. Bideo eta soinu artxiobak ikusteko guneak ere eskas samar aurkitu ditugu (% 40k ez daukate). Bideoteka, fonoteka eta hemeroteka zerbitzuak, aldiz, hamarretatik zortzitan badaude.

Erabiltzaile txartela doan ematen dute 10 liburutegitatik 9tan, baina **erdietan soilik egin digute eskatu eta berehala.** Hirutatik bitan, ez dago txartela berritu beharrik, eta berritzera behartzen duten liburutegi gehienek bost urterako ematen dute. Txartela aterata, beste hainbat gauzaren artean, ordenagailu bat beretzat gorde ahal izango du erabiltzaileak minutu batzuetan Interneten nabigatzeko (halaxe gertatzen da zerbitzu hori daukaten biblioteken erdietan). Talde lanean aritzeko gelak ere gorde ahal izango ditu, baina ez zerbitzu hori eskaintzen duten guztietan (30ek ematen du zerbitzu hori, eta 13tan soilik izaten da aukera).

Aztertu ditugun biblioteka guztiak uzten dituzte liburuak maileguan; aldizkariak % 40tan eraman daitezke, eta egunkariak % 6tan. Bilbon, batek izan ezik, gainerakoek aukera ematen zuten aldi berean liburuak, CDak, DVDak eta egunkariak edo aldizkariak hartzeko. Granadan eta Valentzian, berriz, ezin da liburutegitik kanpora atera maiztasun jakineko argitalpenik. **Aldi berean material gehien eramateko aukera Bartzelonako bibliotekak eskaintzen dute:** dozena bat har daitezke, 3 asterako (gainerakoek, batez beste, 5-6 gauza uzten dituzte, eta 15 egunerako uztea izaten da ohikoena). Aitzitik, Zaragozan eta Bilbon aztertu ditugun gehienetan, bi gauza baino ezin dira hartu. Mailegu-denbora motz geratzen denean, luzatzeko aukera izaten da: Madrilgoek eta Donostiakoek eskaintzen dute erraztasun gehien horretarako (hilabetez luzatzen dute; Bilboko guztiak, aldiz, bi egunez baino ez). Mailegua moldatzeko, bibliotekara bertara joan beharra dago % 44tan, posta elektronikoz egin daiteke % 20tan, telefonoz deitu eta txarteleko datuak emanda % 30etan, edo Internet bidez % 5etan.

Erabiltzaileak nahi duen liburua bibliotekan ez bada, biblioteka-arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dute hamarretatik zortzik (Madrilgo eta Iruñeko gehie- >





nek ez daukate halakorik). Alacanten, Bartzelonan, Cadizen, Malagan eta Gasteizen, materiala batetik bestera eramatea soilik ordaindu behar izaten da 14 bibliotekatan (euro 1 eta 23 artean kostatzen da).

Autonomia erkidego bakoitzean ofizial diren hizkuntzetakoak ez ezik, beste hainbat hizkuntzakoak liburuak ere gero eta gehiago eskatzen dituzte erabiltzaileek. Biblioteken % 92k eskaintzen dute aukera hori, nahiz eta kopurua eta ugaritasuna asko aldatzen den batzuetatik besteetara. Eskaintzarik osatuena hiriburu hauetan aurkitu dugu: Bartzelona, Madril, Bilbo, Valentzia, Donostia, Gasteiz, A Coruña eta Granada. Ingeleseko eta frantsesezko liburuak aurki litezke gehien, eta alemanez, italieraz eta portugesez argitaratuak ere badira. Zenbaitetan ikusi ditugu liburuak arabiera, txinera, errusiera, errumaniera eta japonieraz.

### SEGURTASUNA HOBETU LITEKE

Lburutegia dagoen eraikinak segurtasun sistema egokiak eduki behar ditu erabiltzaileak babesteko, halaxe agintzen du legeak. Gehienek, ordea, gabeziaren bat edo beste daukate. Biblioteken % 75etan, ez dugu ikusi segurtasun kamerarik eraikin barruan, eta ia % 70etan, kanpoan ere ez. Segurtasun zaindaria % 28tan soilik ikusi ditugu sarbideak zaintzen, eta lau bibliotekatatik batek ez du eduki larrialdi irteerarik. Halako irteerak ageri dituztenen ia erdiek, gainera, itxita eduki dituzte (oztoporik ez dute izan, hala ere). Alde onak nabarmentzen hasita, honako hauek egin

litezke: % 90ek larrialdiko argiak dauzkate, eta gela guztietan su-itxalgailuak. Hala eta guztiz ere, suaren aurkako aterik ez daukate askok (% 76k), suteetarako hargunerik ere ez (% 70ek) eta ur ihintzailurik ere ez dugu ikusi % 62tan, hodi malgurik ere ez % 36tan eta su detektatzaileak ere falta izan dituzte % 18k.

Guk bisitatu ditugun ehun bibliotekatatik, hiri hauetakoak soilik egoten dira irekita goiz eta arratsalde etenik gabe, asteko bost egunetan: Cadiz, A Coruña, Kordoba eta Madril. Banan-banan aztertuta, honako egoerak ikusi ditugu: Bartzelonan, unibertsitate-biblioteka batek astean 87 ordu egiten ditu irekita, eta Valladolideko udal biblioteka batek, berriz, 12 ordu baino ez astelehentik igandera, eta Donostiako beste batek, astean 15 ordu. Bartzelonan aurkitu dugun unibertsitate-biblioteka hori 08:30ean irekitzen dute, eta goizaldeko 01:00ean itxi (gainerako gehien-gehienak 19:00en eta 22:00en artean ixten dituzte). 37 liburutegi itxita egoten dira larunbatetan, eta bakarra ireki igandeetan.

### ARRETA EGOKIA

CONSUMER EROSKI-ko teknikariek proba praktiko bat egin dute liburutegi guztietan: liburu bat bilatzen saiatu dira katalogo-ordenagailuetan (Charles Darwin-en The origin of species liburuaren gaztelaniazko bertsioa aurkitzen saiatu dira unibertsitate-biblioteketan, eta Patrick Süskind-en Das Parfum, die Geschichte eines Mörders liburuaren gaztelaniazko bertsioa gainerakoetan). Zazpi bibliotekatan, erabiltzaileak ezin izan dira sartu katalogo informatizatura (hori gertatu da Alacanteko erdietan eta Zaragozako bitan, eta Murziako eta Valladolideko beste bitan). Zerbitzu hori eskaintzen duten hamarretatik bederatzitan, teknikariak oso erraz moldatu dira, eta neke handirik gabe jakin ahal izan dute liburuak beste norbaiti utzia dagoen eta bibliotekako zein apaletan aurki litekeen. Cadizen, Zaragozan eta Murtzian libre aurkitu dituzten ordenagailuak matxuratuta egon dira (salbuespena izan da hori). Teknikariek sistemak probatu ondoren, bibliotekako langileei eskatu diete laguntza, eta proba berbera egin dute orduan ere. Hamar liburutegitatik seitan, arreta egokia eskaini diete. Zerbitzu bereziki ona eman diete Bilbon, Granadan eta Oviedon. Beste zenbait lekutan, aldiz (Alacanteko, Cadizko, Madrilgo, Malagako eta Valladolideko liburutegi batzuetan), funtzionarioak ohar batzuk baino ez dizkiete eman gure teknikariei; ez diete jakinarazi non dagoen liburuak, eta bilatzen ere ez diete lagundu.

Beste proba praktiko bat ere egin dute teknikariek: bazkide txartela egiteko informazioa eskatu dute. Liburutegi askotan, ordea, ez diete informazio-orririk eman (% 47tan soilik eskuratu dute funtzionamendu arauetarako dokumentazioa). Informazio-orri horietan, bazkide txartela eta mailegu zerbitzua nola erabili behar den adierazi diete, eta zer zigor jartzen dituzten maileguan hartutakoak epez kanpo bueltatzeko. Bestalde, hamarretatik zortzik ez diete jakina-

HIRI BAKOITZEAN AZTERTU DITUGUN LIBURUTEGI PUBLIKOEN BATEZ BESTEKO EMAITZA ETA CONSUMER EROSKI-K AZTERTU DITUEN ATALEN EMAITZA

HIRIAK	Zerbitzuak <sup>1</sup>	Informazioa <sup>2</sup>	Segurtasuna <sup>3</sup>	Garbitasuna <sup>4</sup>	Irispideak <sup>5</sup>	Batez besteko emaitza
A Coruña	Onak	Onargarria	Onargarria	Oso Ona	Onak	Ona
Alacant	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Oso Onak	Hala-holakoak
Bartzelona	Onak	Ona	Onargarria	Oso Ona	Bikainak	Ona
Bilbo	Onak	Oso Ona	Oso Ona	Oso Ona	Bikainak	Oso Ona
Cadiz	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarria	Ona	Onak	Onargarria
Kordoba	Onargarriak	Ona	Oso Ona	Oso Ona	Onargarriak	Ona
Granada	Onak	Ona	Onargarria	Oso Ona	Onak	Ona
Madril	Onak	Onargarria	Onargarria	Oso Ona	Oso Onak	Ona
Malaga	Onargarriak	Ona	Onargarria	Oso Ona	Onargarriak	Onargarria
Murtzia	Onak	Ona	Onargarria	Ona	Onak	Ona
Oviedo	Onargarriak	Ona	Hala-holakoak	Oso Ona	Onak	Onargarria
Iruñea	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarria	Ona	Hala-holakoak	Hala-holakoak
Donostia	Onak	Oso Ona	Ona	Oso Ona	Onak	Ona
Sevilla	Onak	Ona	Onargarria	Ona	Hala-holakoak	Onargarria
Valentzia	Onargarriak	Ona	Onargarria	Oso Ona	Onak	Onargarria
Valladolid	Hala-holakoak	Onargarria	Onargarria	Ona	Onak	Onargarria
Gasteiz	Onak	Ona	Onargarria	Oso Ona	Oso Onak	Ona
Zaragoza	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarria	Ona	Hala-holakoak
<b>BATEZ BESTEKO EMAITZA</b>	<b>Onargarriak</b>	<b>Ona</b>	<b>Onargarria</b>	<b>Oso Ona</b>	<b>Onak</b>	<b>Onargarria</b>

(1) **Zerbitzuak:** Bibliotekak erabiltzaileari zer aukera eskaintzen dizkieten aztertu dugu: mailegu mota, katalogo-ordenagailuak, taldeentzako aretoak, bideotekak, fonotekak, Interneterako sarbidea, fotokopiagailuak, armairutxoak, paperezko materiala eta ikus-entzunezkoak, eta abar. (2) **Informazioa eta erabiltzaileenganako arreta:** Kartelek, informazio panelek eta iragarki taulek zer informazio ematen duten aztertu dugu (bibliotekak eskaintzen dituen aukerei buruz zer esaten duten, hain zuzen). Gainera, langileek zer tratatu eman diguten ere aztertu dugu. (3) **Segurtasuna:** Zer-nolako segurtasun sistemak dituzten aztertu dugu (larrialdi irteerak, su-itxalgailuak, kamerak, zaindaria, eta abar). (4) **Garbitasuna eta mantentze-lanak:** Biblioteka kanpoaldea eta barrualdea zein egoeratan dauden aztertu dugu, eta zerbitzuak nola funtzionatzen duten ere bai (bideoak ikusteko eta soinu artxi-boak entzuteko guneak, katalogo-ordenagailuak, eta abar). (5) **Irispideak:** Bibliotekak ezinduentzat egokitu ote dauden aztertu dugu (aldapatoak badituzten, komun egokituak, braillez idatzitako kartelak, eta abar).

## Liburutegi digitalak

Informazioaren teknologia bete-betean sartu dira jende askoren bizimoduaren, eta bibliotekak ere ezin diote horri ihes egin. Urte batzuetatik hona, hainbat erakunde (hezkuntza arlokoak, publikoak eta pribatuak) lanean ari dira paperean argitaratu diren hainbat obra, artikulua eta argitalpen formatu digitaletan ere jartzeko. Biblioteka digitalen proiektuei esker, besteak beste, jakinduria orokortu ahal izango dela uste da. 2007. urtetik aurrera, adibidez, doan kontsultatu daitezke Internet bidez Espainiako legeria historikoaren funts guztiak, 1810eko Cadizko Gorteetatik hasita (Espainiako Diputatuen Kongresuan daude gordeak). Modu horretan, jendearen eskura daude eta, aldi berean, ongi zaindu eta babestuek, eta inork ez ingo ditu fisikoki manipulatu dokumentu baliotsu horiek. Baina jakinduria eta teknologia berriak lotzeko asmoa ez da horretara mugatzen, ezta gutxiago ere. Europako Batasuna biblioteka digital bat eratu nahian ari da, eta asmoa zera da, 2010. urterako sei milioi liburu jartzea herritar guztien eskura. UNESCO erakundea ere antzeko proiektua gauzatzeko bidean ari da 2006. urteaz geroztik: Munduko Biblioteka Digitala edo antzeko zerbitu egin nahi dute. Asmoa da biltegi handi bat sortzea Interneten, libre eta doakoa, eta han biltzea hainbat hizkuntzatan dauden kultur material "ohiko eta bakanak". Biblioteka publikoen kudeaketan eta funtzionamenduan aspaldi samar sartu ziren teknologia berriak, eta horren ondotik, digitalizazioaren fenomenoak iritsi da berriki, eta poliki-poliki aurrera doa. Horixe erakusten du Germán Sánchez Rupérez Fundazioaren txosten batek (Biblioteka Publikoak Espainian. 2001-2005 dinamikak). Duela lau urte, bi biblioteka publikotatik bakarrik erabiltzen zuten tresna hori bibliografia funtsak katalogatzeko; % 37k soilik zeukaten katalogo automatizatuak eta web formatuan eskuragarri jarria, eta beste hainbestetan, erabiltzaileek ez zeukaten Interneterako sarbiderik, bibliotekak ez baitzuten eskaintzen zerbitzu hori.



razten bazkideei zein liburu berri iritsi diren bibliotekara, nahiz eta % 68k bereiz jartzen dituzten jendearen bistara, zer iritsi den ikus dezaten. Alacanten aztertu ditugun guztiak eta Donostiako lauk mezua bidaltzen diete bazkideei material berriak iritsi direla jakin dezaten (gutuna edo mezu elektronikoa).

Gabezia gehien, seinaleen atalean antzeman dituzte gure teknikariek. Biblioteken % 79k ez dute adierazten informazio-orri bidez han badutela erreklamazio liburu, % 63tan ez dugu ikusi inolako informazio-oharrik esanez badagoela iradokizunak biltzeko postontzi bat, eta % 67tan ez dago kartelik esateko zer egin behar den larrialdi bat edo sute bat gertatzen denean. Gainera, bostetatik batean ez dute panel bidez jakinarazten non dauden larrialdi irteerak, eta zortzitatik batean, bibliotekako arauak zein diren ere ez dute adierazten (sakelakoa itzali behar dela, barruan ezin dela ez jan eta ez edan...).

## GARBITASUNA ETA IRISPIDEAK, ONAK

Liburutegi batek zerbitzu ona emango badie erabiltzaileei, ongi zainduta eta txukun egon behar du. Bisitatu ditugun liburutegien % 90 oso ongi egon dira kanpoaldetik, eta eraikinaren hormak ere oso ongi zainduta eduki dituzte. Eraikina bera ere oso ongi zainduta eta oso txukun aurkitu dugu ia gehienetan (% 75 hala egon dira, eta Cadizkoak, Kordoba, Oviedokoak, Donostiakoak eta Gasteizkoak nabarmendu dira besteen gainetik). Barruko giroak eta argitasunak garrantzi handia dute liburutegi bat erosoan izan dadin, eta alderdi horiek egoki zainduta eduki dituzte bibliotekarik gehienek. Komunak ere garbi egon dira hamarretatik bederatzitan.

Bestalde, liburutegiek aukera eman behar dute erabiltzaile ezinduek ere, besteek bezain eskura izan ditzaten kulturaren, informazioaren eta hezkuntzaren arloko ekimenak. Liburutegien % 84tan, legeak agintzen duen bezain ate zabalak aurkitu ditugu kanpoan eta barruan (gurpil aulkian doazenak pasatzeko modukoak). Gelak eta aretoak ere zabalak ote diren egiaztatu dugu, aski leku dutenak erabiltzaile ezinduek ere eroso ibili ahal izateko. Bederatzi bibliotekak ez dute proba hori gainditu (Valladoliden, Iruñean, Cadizen, Kordoban, Murtzian, Sevillan, Valentzian eta Donostian aurkitu ditugu halakoak). Gainera, lautatik batean, komunek ez dute bete irispideei dagokien araua. Iruñean, aztertu ditugun bost biblioteketatik bakkarrak ere ez dauzka komunak egokituta.

Braille hizkuntzan idatzitako kartelak % 10etan soilik aurkitu ditugu, eta are biblioteka gutxiagok eskaintzen dituzte braillez idatzitako liburuak. Sevillan, Murtzian, Granadan, Madrilen, Bilbon eta Bartzelonan aztertu ditugun batzuetan soilik daude. //



A CORUÑA

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 4  
→ **ONENA:** Oso garbi egon dira bibliotekak, eta material guztiak oso ongi ordenatuta eta zainduta daukate.  
→ **TXARRENA:** Informazioa (langile batzuek laguntza eskasa eman diete gure teknikariei) eta segurtasuna (biblioteken erdiek ez daukate larrialdiko argirik).



GASTEIZ

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 5  
→ **ONENA:** Garbi daude eta irispide onak dituzte.  
→ **TXARRENA:** Segurtasunaren atala hobetzeko modukoa da: aztertu ditugun bost biblioteketatik lautan ez ditugu ikusi ke detektatzaileak, eta biblioteka batean ez dute seinale bidez adierazten non dagoen larrialdi irteera.



MURTZIA

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 6  
→ **ONENA:** Erabiltzaileei informazio ona ematen diete, irispide onak dituzte, zerbitzuz ongi hornituta daude, eta bibliotekak garbi-garbi daukate.  
→ **TXARRENA:** Gabeziak segurtasunaren atalean: larrialdi irteerak non dauden adierazteko seinalerik ez dago biblioteka batean, hodi malgu gutxi dituzte, eta kea/sua antzemateko sistemak ere urri.



ALACANT

→ Batez besteko emaitza: HALA-HOLAKOA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 5  
→ **ONENA:** Iripide onak dituzte (aldapatxoak eskaileren ondoran, komun egokituak, areto zabalak gurpil aulkientzat...)  
→ **TXARRENA:** Garbitasuna, zerbitzuak (erdiek ez daukate katalogo informatizaturik), informazioa (gune batzuk hondatuta egon dira eta langileen tratua hobetu behar da).



GRANADA

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 4  
→ **ONENA:** Informazio ona ematen dute, garbi-garbi daude, ongi ordenatuta, irispide onak dituzte eta zerbitzu asko eskaintzen dituzte  
→ **TXARRENA:** Segurtasun neurri gutxi daukate (segurtasun kamerak falta dira sarbideetan, larrialdiko irteerak non dauden adierazteko seinaleak ere falta dira, eta ke/su detektatzaileak ere bai).



OVIEDO

→ Batez besteko emaitza: ONARGARRIA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 4  
→ **ONENA:** Ongi zainduta, irispide onak eta informazio ona erabiltzaileentzat (liburu berriak bereiz jarrita, ordenagailuak erraz erabiltzekoak...)  
→ **TXARRENA:** Gabeziak zerbitzuetan (taldean lan egiteko aretoak falta dira eta automailleguak egiteko makinak), eta segurtasunaren atala ere hobetu dezakete.



BARTZELONA

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 10  
→ **ONENA:** Iripide onak dituzte, eta oso ongi garbituta daude sarbideak, barrualdea eta komunak. Informazioa bikaina eta mailegu sistema ere bai.  
→ **TXARRENA:** Gabeziak dituzte segurtasunaren arloan (segurtasun kameretan, suitzalgailuetan eta larrialdi irteeretan).



IRUÑEA

→ Batez besteko emaitza: HALA-HOLAKOA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 5  
→ **ONENA:** Garbitasuna ongi zaintzen dute, eta eraikinak eta materialak ere bai.  
→ **TXARRENA:** Ordu-tegi mugatua (bostetik hiruk arratsalde soilik irekitzen dute), eta irispideetan gabeziak (gurpil aulkietan dabilzantzat egokitu gabe komunak azterturiko bost bibliotekak).



SEVILLA

→ Batez besteko emaitza: ONARGARRIA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 6  
→ **ONENA:** Informazio ona eskaintzen dute (langileek egoki lagundu gaituzte, eta zehaztasun onak eman dizkigute), eta bibliotekak garbi daude (egoki argituta daude areto guztiak).  
→ **TXARRENA:** Iripideak eta segurtasun neurriak ere bai.



BILBO

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 6  
→ **ONENA:** Iripide onak dituzte, ongi garbituta daude, informazio ona ematen diote erabiltzaileari eta segurtasun neurri onak daukate.  
→ **TXARRENA:** Taldean lan egiteko aretoak falta dituzte, automaillegurako makinak eta informazio mahaiaik solairu guztietan jarri behar lituzkete.



KORDOBA

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 4  
→ **ONENA:** Argi askoko lekuak dira, ongi zainduta daude eta segurtasunaren atala ere ongi daukate.  
→ **TXARRENA:** Areto estuak dituzte, eta gurpil aulkiekin ezin da eroso ibili; komunak ez daude egokituta ezinduek ere erabili ahal izateko, eta katalogo-ordenagailu gutxi daude solairu bakoitzean.



VALENTZIA

→ Batez besteko emaitza: ONARGARRIA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 6  
→ **ONENA:** Bibliotekak garbi daude, irispide onak dituzte eta informazio ona ematen diete erabiltzaileei.  
→ **TXARRENA:** Mailegua bertara joan beharra dago nahitaez, ezin baita egin Internetez edo telefonoz. Larrialdiko irteerak eta argiak falta dira.



CADIZ

→ Batez besteko emaitza: ONARGARRIA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 4  
→ **ONENA:** Garbi eta ongi ordenatuta daude. Iripide egokiak dituzte eta ordu askoko zerbitzua.  
→ **TXARRENA:** Langileen tratua. Internetera sartzeko ordenagailuak falta dituzte, gabeziak daukate larrialdi irteeretan, eta katalogoa begiratzeko ordenagailuak matxuratuta egon dira.



MADRIL

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 10  
→ **ONENA:** Iripide onak dituzte, eta materiala (liburuak, DVDak, CDak...) txukun eta ongi zainduta daukate.  
→ **TXARRENA:** Langileek arreta eskasa eta laguntza gutxi ematen dute, eta zaila gertatzen da biblioteka-arteke maileguak egitea.



VALLADOLID

→ Batez besteko emaitza: ONARGARRIA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 4  
→ **ONENA:** Ongi garbituta eta irispide onak.  
→ **TXARRENA:** Zerbitzuen atalean gabeziak dituzte, informazio eskasa ematen dute bibliografia funtsari edo bibliotekaren funtzionamenduari buruz, eta larrialdiara segurtasun neurriak ere hobetu daitezke.



DONOSTIA

→ Batez besteko emaitza: ONA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 5  
→ **ONENA:** Garbi daukate bibliotekak, eta ongi zainduta; erabiltzaileei informazio ona ematen diete.  
→ **TXARRENA:** Biblioteka bateko larrialdi irteeretan oztopoak egon izan dira, eta beste batean, komunak ez dira egon behar bezala egokituta.



MALAGA

→ Batez besteko emaitza: ONARGARRIA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 6  
→ **ONENA:** Argi askoko lekuak, Interneten ibiltzeko ordenagailu ugari eta biblioteka-arteke mailegu zerbitzu ona.  
→ **TXARRENA:** Beste norbaitek maileguan hartua duen materiala ezin da erreserbatu. Iripideak hobetu ditzakete. Oztopoak, biblioteka bateko larrialdi irteeran.



ZARAGOZA

→ Batez besteko emaitza: HALA-HOLAKOA  
→ Aztertutako biblioteka kopurua: 6  
→ **ONENA:** Iripide onak dituzte, eta garbi daude.  
→ **TXARRENA:** Segurtasuna, informazioa (biblioteka nola banatua dagoen esaten duten adierazgarriak nahasi samarrak dira) eta zerbitzuak (bi bibliotekak ez daukate katalogo informatizatuak).